

DINARRIZKO MATERIALA 2

AZENARIOA, ARRAULTZEAK EDO KAFEA

Alaba bat ari zen kexati bere aitari bere bizitzari buruz hitz egiten gauzak zailak suertatzen baitzitzaizkion. Aurrera egiteko zer egin ez zekiela eta etsitzeko tentazioa zuela. Borrokatzeaz nekatuta zegoen. Antza, arazo bati irtenbidea topatzerakoan beste bat agertzen zitzaion.

Bere aita sukaldaria zen eta alaba berarekin lantokira eraman zuen. Bertan, hiru lapiko urez bete zituen eta sutan jarri ere bai. Laster hasi zen ura irakiten. Lapiko batean azenarioak sartu zituen, bigarreanean arraultzeak eta hirugarrenean kafe pikorrak.

Hitzik esan gabe irakiten utzi zituen. Alaba lasai-lasai egon zen bere buruari aitak zertan ote zebilen galdezka. Hogeiren bat minutu pasa zirenean, aitak sua itzali zuen. Azenarioak atera eta ontzi batean jarri zituen. Arraultzeak atera eta platera batean ipini zituen. Kafea iragazi eta katilu batean utzi.

Alabari so, esan zion: Laztana, zer ikusten duzu? "Azenarioak, arraultzeak eta kafea" erantzun berak. Hurbilarazi eta azenarioak ukitzeko eskatu zion.

Halaxe egin eta konturatu zen guri-guri zeudela. Gero esan zion arraultze bat hartu eta apurtzeko. Azala ateratzerakoan ohartu zen gogortu zela. Bukatzeko kafea dastatzeko eskatu zion. Irribarretxo usain gozoaz gozatu zuen.

Umilki alabak galdetu zion: Aitatxo, zer esan nahi didazu honekin?" Berak erantzun zion hiru elementuek egoera berari aurre egin behar izan ziotela: irakiten ari zen ura, baina era ezberdinez erreakzionatu zutela; Azenarioak sendo, gogor iritsi ziren urera baina irakin ondoren ahuldu ziren, erraz desegiteko modukoak bihurtu ziren.

Arraultzeak uretan sartzerakoan hauskorak ziren, Azal finak barneko likidoa babesten zuen. Uretan irakiten egon eta gero, barrualdea gogortu zitzaien.

Kafe pikorrek, ordea, apartak ziren! Ura barruan irakiten egon ostean ura aldatu zuten!

Galdetu zion alabari: Eta zu nor zara? Ezbeharra zure bizitzan agertzen denean, zer nolako erantzuna ematen diozu? Nolakoa zara zu? Itxuran indartsua den

azenarioa baina ezbeharraren aurrean eta mina agertzean ahuldu eta indargabetu egiten dena? Arraultzea al zara, moldagarria den bihotza daukazu? Izpiritu jariakorra zenuen eta heriotza baten ondoren, banaketa edo agurraren aurrean gogortu eta zorrotz bihurtu zara? Itxuran berbera baina barrutik mingots eta latza, izpiritu eta bihotza gogortuarekin? Edo kafe pikor baten antza duzu?

Kafeak irakiten ari den ura aldatu egiten du, mina sortarazten dion elementua transformatzen du. Ura irakiteko puntura iristean, orduan lortzen du kafeak bere zaporarik hoberena. Kafe pikor bat bezalako bazara, gauzak ondo ez doazenean, hobeto erreakzionatzen duzu eta zure inguruko gauzak hobetzea lortzen duzu.